

ERABILERA PUBLIKORAKO PLANA TXINGUDI KO PADURAK

ELKARRIZKETA
Javier
Gómez-Limón



ekoetxea

Txingudi

Txingudiko paduren albistegia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA


DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

Txingudiko padura naturgune babestua izateaz gain, paisaia aberastasun handia eta natur ondare baliotsua duen espazioa da. Balio horiek eta espazioaren erabilera helburu zientifiko, didaktiko eta ludiko uztartzea izan da Eusko Jaurlaritzak Txingudiko paduren erabilera publikorako plana bezalako dokumentu bat sortzeko izan duen erronka. Guzti hori, EUROPARCen lankidetzarekin

(batez ere, Javier Gómez-Limón buru duen taldea) eraman da aurrera. Planak eragile guztien parte hartzea izan du. Gure ustez, Plan horrek ingurune babestu batean erabilera publikoa planifikatu eta kudeatzeko beharrari erantzuten dio. Plana tramitatzen ari da, ahalik eta denborarik laburrenean onar dadin eta hura inplementatuta gera dadin ahalik eta azkarren.

José Ignacio Ruiz de Loizaga Lafuente

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen-hezkuntzako Zerbitzuaren Arduraduna



Txingudiko padurak >



Javier Gómez-Limón

- Zientzia Biologikoetan doktorea Madrilgo Unibertsitate Autonomoan.
- Natura Babesteko Nazioarteko Batasunaren (UICN) World Commission on Protected Areas (WCPA) erakundeko kidea da.
- Mendiko eta Eskaladako Kirolen Espainiako Federazioaren (FEDME) Mendietako Aholku Batzorde Zientifikoko kidea.
- EUROPARC-Españako gune babestuetako erabilera publikoaren eta turismo jasangarriaren arloko arduraduna.



HENDAIA

IRUN

Bidasoa ibaia

**Bidasoako
irlak**

Oxinbiribil

**Plaiiaundiko
Parke
Ekologikoa**

HONDARRIBIA

**Jaitzubiako
padurak**

Hitz gutxitan, zer da babestutako espazio natural bateko erabilera publikoko plana?

Planifikazioko dokumentu bat da, babestutako naturgune baten erabilera publikoaren hasierako egoera aztertzen duena (jarduerak, baliabideak eta ekipamenduak), informazioarekin, komunikazioarekin, ingurumen-hezkuntzarekin, parte-hartzearekin eta abarrekin zerikusia duena. Diagnostiko horretan oinarrituta, jarduera zehatzak dituzten programak proposatzen ditu. Azken finean, babestutako espazioa kudeatzeko erabili nahi den erabilera publikoko eredia denbora jakin batean garatzea izango litzateke.



Zeintzuk dira babestuta dagoen eremu batetako erabilera publikoan landu beharreko oinarrizko irizpideak?

Irizpide horiek plana egiteko erabiliko den esparru kontzeptuala gidatu behar dute. Ondoren zerrendatutakoak dira oinarrizko irizpide horiek:

- Plana egiteko prozesuan gardentasun eta parte-hartze publiko egokiak ziurtatzea.
- Behar bezala ebaluatutako aukeretatik abiatuta erabakiak hartzea.
- Planaren edukia indarrean dagoen bitartean gauzatzeko gaitasunari egokitzea.
- Informaziorik eta ezagutzarik onena erabiltzea.

Horrelako prozesuetan, batzuetan elkarri lotutako kontzeptuak elkarren ondoan jartzen dira, baina ez dute esanahi bera. “Erabilera publikoko plan bat ezartzearen” eta “erabilera publikoko zerbitzuetan kalitate-sistemak ezartzearen (adibidez, kalitate turistikoko ISO edo Q arauak)” kasua da hori. Zentzu horretan, zer daukazu esateko?

Esan bezala, erabilera publikoko plana babestutako espazio baten erabilera publikoa planifikatzen duen dokumentua da. Hala ere, zuk aipatzen dituzun kalitate-sistema horiek erreferentzia estandar desberdinen arabera erabilera publikoaren kudeaketa ordenatu nahi duten arau multzoak dira. Arau horien helburuak irizpideak orientatu, koordinatu, sinplifikatu eta eremu babestu baten erabilera publikoko eremua hobeto kudeatzeko bateratzea dira. Azken finean, bisitariei eskaintzen zaizkien erabilera publikoko zerbitzuen kalitatea hobetzea da.



Babestutako espazioei lotutako erabilera publikoko planaren kontzeptua aldatuz joan da gizarteak beste behar batzuk eskatzen zizkien heinean. Horri dagokionez, gehiago sakondu al dezakezu?

Erabilera publikoko planaren kontzeptua baino gehiago, azken 30 edo 40 urteetan, erabilera publikoaren kontzeptua eraldatu da, espazio babestuaren kontzeptuaren beraren bilakaerari lotua. Kontuan hartu behar dugu lehen parke nazionalak, XIX. mendearen amaieran deklaratuak izan zirenak, esparru isolatu gisa pentsatu zirela, hau da, inguruko lurraldea etengabe aldatzen ari zen bitartean, babestutako eremuak ez horrenbeste. Garai hartan, erabilera publikoaren eginkizuna aisialdian eta behaketetan oinarritutako jarduerak garatzea zen. Administrazioa gune horietara iristeko errepideak eraikitzeaz soilik arduratzen zen.

“Ebidentzia zientifikoak ezinezkoa dela espezieak populazio bakartuak mantenduz kontserbatzea erakutsi du, ekosistemen zatiketa dela espezieak desagertzeko arrazoi nagusietako bat, eta babestutako azalera handitzea ez dela nahikoa ekosistemen funtzionamendua ziurtatzeko”

XX. mendean, irizpide zientifiko-teknikoak aintzat hartuta modu sistematikoan espazio babestuak izendatzen hasi ziren. Horrez gain, fauna eta flora osatzen duten espezieei arreta jartzeaz gain funtsezko prozesu ekologiko eta ebolutiboak ere kontutan hartzen hasi ziren. Une hartan, erabilera publikoaren funtzio nagusia mendi publikoak aisialdirako egokitzea izan zen eta lehen harrera instalazioak eraiki ziren (jolas-eremuak, askaldegia, barbakoak...).

Oraintsuago, ebidentzia zientifikoak ezinezkoa dela espezieak populazio bakartuak mantenduz kontserbatzea erakutsi du, ekosistemen zatiketa dela espezieak desagertzeko arrazoi nagusietako bat, eta babestutako azalera handitzea ez dela nahikoa ekosistemen funtzionamendua ziurtatzeko. Horren ondorioz, kontserbazio sare eta sistemen

proposamenak garatzen hasi ziren, konektibitate ekologikoaren eta babestutako eremuen bateratzearen kontzeptuak sartuz. Azken bi hauek eskualde mailako funtzionamendu ekologikoaren funtsezko elementu gisa aurkeztu ziren lurralde matrizea integratzerakoan.

Babestutako espazioak lurralde mosaiko baten piezak dira, eta bereizi egiten dira kudeaketa eredu bat eta babes erregimen bat behar dutelako, ekosistema naturalen funtzionamendutik eratorritako onurak gizarteari emango zaizkiola bermatzeko asmoarekin. Erabilera publikoa eremu horiei lotutako ingurumen hezkuntza eta ingurunea interpretatzeko lehenengo jarduerekin lotzen hasia da dagoeneko. Momentu horretatik aurrera lehen ekipamenduak eraikitzen hasten dira, esaterako; bisitarien zentroak.



Kudeaketa eta kontserbazio ikuspegi berrienak integritatearen eta osasun ekologikoaren kontzeptuetan oinarritzen dira. Osotasun handiagoko edo osasun ekologiko handiagoa duten ekosistemek ahalmen handiagoa dute perturbazioei aurre egiteko (erresilientzia).

Azken urteotako aldaketa globalaren ondorioak, nahiz eta gaur egun ez diren erabat ebaluatu, lurraldearen plangintzan eta kudeaketa ekosistemikoko ereduak aplikazioan planteamendu integralak egitera bideratu behar dira. Gune babestuak biodibertsitatea kontserbatzeko tresna gisa hartzen dira, baliabide naturalak administratzeko modu moderno gisa, non helburu nagusia ekosistemek eskaintzen dituzten zerbitzuak bermatzea baita baliabideen kontserbazioarekin batera. Erabilera publikoaz hitz egiten badugu, gaur egun, gune babestuak gizartera irekitako toki gisa ulertzen dira. Kontserbaziora bideratutako egitura horiek kudeatzeko modu berriak sartzen dira; balio ez-materialak, osasuna eta giza ongizatea, hezkuntza, aisia eta kultura bezalako kontzeptuek lekua dute eraikitzeke garaian.



“Azken hilabeteetan, bisitariak natura masifikatzen ari dira, hirietatik ihesi, naturarekin adiskidetu nahian, gune horiek aukeratu dituzte pandemiari aurre egin eta ihes egiteko”

Ikusi denez, gizartea eremu horiekiko etengabeko eskaerei erantzuten saiatu da.

Orain, egokitze kudeaketaren kontzeptua inoiz baino agerikoagoa da. COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz, gune babestuak berriro egokitu behar izan dira profil orokorragoa duten erabiltzaileak naturara hurbildu direlako. Azken hilabeteetan, bisitariak natura masifikatzen ari dira, hirietatik ihesi, naturarekin adiskidetu nahian, gune horiek aukeratu dituzte pandemiari aurre egin eta ihes egiteko.

Orain, jendetza handi horri aurre egiteko babestutako guneek hainbat tresna izan behar dituzte: egokitzapen plana, erabileren erregulazioa (araudia), errealitate aldakorrari buruzko ezagutza zientifiko-teknikoa (gertatzen ari dena eta horren ondorioak), bisitarietako komunikazioa eta tresna horiek guztiak ezartzeko kudeaketa gaitasun egokia.

“Erabilera publikoari buruz hausnartu behar dugu. Bisitari horiei bisita eredu berri bat eskaini “slow visit” deritzona, bisita motela, lasaia eta pausatua”

Erabilera publikoari buruz hausnartu behar dugu. Bisitari horiei bisita eredu berri bat eskaini “slow visit” deritzona, bisita motela, lasaia eta pausatua. Gune babestuek eskaintzen dizkiguten txoko eta esperientzia guztiez minuturo gozatzu.


Zein izan zen jatorrizko egoera? Bestela esanda, zein izan zen EUROPARCEk kasu honetan egin zuen hasierako diagnostikoa?

Egin genuen diagnostikoan zenbait ahulezia eta arazo zeudela ikusi genuen. Horietatik abiatu ginen erabilera publikoa planifikatzerakoan. Hauek ziren ahulezia nagusienak:


- **Naturgunearen kudeaketa eta planifikazioa administrazio desberdinek partekatzen dute (Estatuko Administrazioa, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Udalak), horrek jardueren koordinazioa zailtzen du.**

- **Eremu babestuan ez zegoen erabilera publikoko eremurik.**

- **Herritarren artean espazio naturala babesteko figurak ez ezagutzea (ez da ahaztu behar espazioa Europako Natura 2000 Sarearen parte dela). Informazio gutxi espazio babestuaren balioei eta haren kudeaketari buruz, bertako biztanleei zuzendua.**



- **Eremu babestuaren zatiketa eta sakabanatze geografikoa, erabilera publikorako ezaugarri eta bokazio desberdinak dituzten hiru eremutan (Plaiiaundi, Jaitzubia eta Oxinbiribil). Konektibitate arazoak.**



- **Lurralde oso konplexua da eta interes asko biltzen ditu, sarritan kontrajarriak.**

- **Habitat eta espezie berezi edo mehatxatu batzuen hauskortasuna. Paduraren hedatzea murriztua.**

- **Baliabide natural/kultural batzuk ez dira balioan jarri eta tokiko biztanleentzat ez dira oso ezagunak.**

- **Ekipamendu, jarduera eta baliabideen gehiegizko fokalizazioa Plaiiaundin. Eskaintza urria eremu babestuko beste zonalde batzuetan.**

- **Txingudiko Ekoetxea eremu babestu osoa kontuan hartu gabe kudeatzea. Ia erabateko dedikazioa Plaiiaundiri, kanpora gutxi zabaltzen baita.**

- **Plaiiaunditik kanpo informazio gunerik ez izatea. Ibilbide batzuk berbideratu/kendu behar dira kontserbaziorako interesgarriak diren espazio berriak bultzatzeko (Plaiiaundi eta Jaitzubia).**


“Gaur egungo Plaiaundiko kirol instalazioek eragin larria dute babestutako guneko baliabide naturaletan”

- Babestuta dagoenaren seinaleztapena osatu gabe eta gaizki.
- Dagoeneko sentsibilizatuta dagoen publiko bati zuzendutako jardueren eta programen eskaintza. Ez daude behar adina jarduera publiko orokorrarentzat edota bertako biztanleentzat, kontserbazioaren kontzientziazio gabe.
- Erabilera publikoa eraginkortasunez kudeatzeko behar beste baliabide material eta giza baliabide ez izatea. Espazio babestuaren zenbait lekutan (Plaiaundi, Jaitzubia) zaintza eta mantentze lan eskasa.
- Bisitari kopuru handia, espazioaren ondare balioak baino naturan aisia eta aisiarako interes handiagoa dutenak.
- Oso irisgarriak diren balio naturaletara iristeko mugak ezartzeko zailtasuna. Espazioaren harrera ahalmena ez da egokitu babestutako enklabe bakoitzaren hauskortasunera.
- Gaur egungo Plaiaundiko kirol instalazioek eragin larria dute babestutako guneko baliabide naturaletan.

Zure irizpidearen arabera, erabilera publikoari lotutako zein jarduerak eragiten die inpaktu handiena Txingudiko padurei?

Txingudiko hasierako egoera aztertzean, ingurunean inpaktuak eragiten ari ziren zenbait jarduera zeudela ikusi ahal izan genuen. Laburbilduz, hauek dira baliabide naturaletan, batez ere, hegazti faunan eragiten duten jarduerarik esanguratsuenak:

- Plaiaundik bisitari gehiegi izatea eta bisitarien pilaketak.
- Uretako kirol jarduerak.
- Plaiaundiko kirol instalazioen aktibitatea.
- Talde jarduera ludikoak (botiloia, koadrilen bilkurak).
- Gehiegizko zarata.
- Txakurrak lotu gabe.
- Bisitarien portaera desegokia (faunari jaten ematea, bidezidorretatik ateratzea, zaborra, bizikletak debekatutako lekuetan, eskola-talde kontrolatugabeak). Horrez gain, espazioko altzarietan eta seinaleetan eragina (haustura, grafitiak, bandalismoa, etab.).



Zeintzuk dira “Txingudiko padurak” eremu babestuaren erabilera publikoko planaren azpian dauden erronkak?

Erronka nagusia, zalantzarik gabe plana onartzea eta ezartzea da. Hala ere, badira beste erronka garrantzitsu batzuk planarekin estuki lotuta daudenak:

- Babestutako eremua erabat lehengoratzea, Jaitzubiako eta Plaiaundiko padurak handituta, eta azken gune horretako kirol instalazioak kentzea.
- Eremu babestuari ustiatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak ematea (informazioa, ingurumen hezkuntza, interpretazioa, sentsibilizazioa...).
- Egungo eskaera berbideratzea eremu bakoitzaren ahultasunak eta ezaugarriak kontutan hartuta. Erabilera publikorako bokazioarekin bat datozen ekipamenduak, zerbitzuak eta jarduerak eskaini.
- Txingudiko Plan Zuzentzailean aurreikusitako erabilera publikoarekin lotutako jardueren garapena.
- Erabilera publikoko jarduerak erregulatu.

- Txingudiko kudeaketa daramaten administrazioen kooperazioa.

- Inguruko beste gune babestu batzuekin lankidetzan aritzea, hemen garatzen den erabilera publikoa osatzeko (Aiako Harria, Jaizkibel, Natura 2000 Sarea Frantzian, etab.). Modu horretan lurraldearen erabilera publikoaren eskaintza zabaltzen da.

- Tokiko biztanleek Txingudik duen garrantzia eta aberastasun naturala baloratzea. Horrekin batera, eremu babestuari buruzko ezagutza zientifikoa handitu beharko litzateke eta gizartea jakitun izatea Txingudik duen balio naturalaz.

- Eremua zati desberdinetan banatzea eta jendea erabilera espezifikoko eremuetara birbideratzea eremu sentikorrenak osasuntsuago egoten lagunduko du. Hala, Oxinbiribil natur guneari lotutako hiri inguruko parke gisa egokitzea: informazio puntua, bisita gidatuak, zirkuitu osasungarriak, interpretazioa, putzuak (apo lasterkaria), hezeguneak, lezkadiak... kultura eta natura elkartuz. Guzti horrek Plaiaundira bisitari espezifikoagoak ekartzea ekarriko luke.



Zenbat denbora behar izan du prozesu horrek? Zenbat erakunde parte hartu dute? Zein izango da Planaren indarraldia?

Erabilera publikoko plana egiteko parte hartze prozesua ia urtebete eta erdi luzatu zen. Guztira 19 erakunde publikok eta pribatuk hartu dute parte saioetan. Arrakasta handia izan du. Dokumentuak sei urteko indarraldia du. Erabilera publikoko jardueren bilakaera aldakorra dela eta uste dugu zentzuzko denbora dela planean aurreikusitakoa jarduerak ezartzeko, ebaluatzeko eta, emaitzen arabera, jarduera berriak dituen plan berri bat planteatzeko.



© Argazkia: EUROPARC

“Parte hartzeko prozesuek diseinua, antolaketa eta, ia beti, dinamizazioa behar dituzte”



© Argazkia: EUROPARC



© Argazkia: EUROPARC

“Erabilera publikoko plana egiteko parte hartze prozesua ia urtebete eta erdi luzatu zen. Guztira 19 erakunde publikok eta pribatuk hartu dute parte saioetan. Arrakasta handia izan du”

Txingudiko paduretako erabilera publikoko plana metodologia jakin bati jarraituz egin zen. Azaldu, mesedez, egin ziren urratsak zeintzuk izan ziren.

Parte hartzeko prozesuek diseinua, antolaketa eta, ia beti, dinamizazioa behar dituzte. Parte hartzeko prozesu baten garapen egokia ziurtatzeko egin beharreko lanak askotarikoak izan daitezke, eta, funtsean, prozesu bakoitzaren baldintzen, mugen eta aukeren arabera da. Gure kasuan, lehenik eta behin, hasierako egoeraren azterketa egiten dugu, lurraldeari buruzko informazioa bildu eta aztertuz. Ondoren, Txingudiko kudeaketan maila desberdinetan parte hartzen duten gizarte eragile publiko edo pribatu nagusiak identifikatzen ditugu. Fase honetan, 21 erakundetako 31 pertsonak jaso zuten gonbidapena parte hartzeko. Hurrengo pausoa parte hartzaileei aurrez lehenetsitako informazioa zabaltzea izan zen, eta informazio hori lan mahaietan lantzeko prestatzea. Azkenik, parte hartzeko prozesua dinamizatzen hasi ginen hainbat tresnaren bitartez: etorkizuneko agertokiak, AMIA azterketa, mapa dinamikoak, osoko eztabaida, etab.

“Mapa dinamikoak tresna teknikoak dira, eta, horiei esker, lurralde mapetan erabakiak komunikatzen ditugu, gure oraingo eta etorkizuneko agertokiak proposatuz”

Prozesuaren faseren batean “mapa dinamikoak” deiturikoak landu ziren. Zer diren eta zer helburu dituzten azal dezakezu?

Mapa dinamikoak tresna teknikoak dira, eta, horiei esker, lurralde mapetan erabakiak komunikatzen ditugu, gure oraingo eta etorkizuneko agertokiak proposatuz. Gure helburua erabiltzaileen tipologiak (bisitariak), jarduerak eta ekipamenduak, erabilera publikoaren eraginak eta neurri zuzentzaileak zehaztea eta kokatzea izan zen. Parte hartzaile bakoitzak aukera zuen informazio guztia, xehetasun handiko eskala batean, babestutako espazioaren mapa batetan fokalizatzeke.

“Ekoetxea Txingudiko egungo langile taldea egonkor mantentzea urte asko baitaramate eremu babestuaren kudeaketarekin lotutako lanetan”

Zein da Txingudiko paduretako erabilera publikoko plana onartu ondoren izango dugun etorkizuneko egoera?

Nik uste dut ingurune babestuaren balio naturalen kontserbazioarekin bat datorren agertokia ikusiko dugula. Ingurumen balioen kontserbazioa lehenesten duen plana bisitarien masifikazioaren aurrean. Kalitatea kantitatearen aurka. Planean proposatutako zonifikazioa hainbat jardueratarako aplikatu da, inguruko hauskortasunaren, balioen eta aberastasun biologikoaren arabera. Etorkizunerako paduraren zabaltze eta lehengoratzeko osoa amaituta egongo dela pentsatu nahi dut. Txingudiko Badian ez oztoporik ez muga artifizialik ez egotea espero dut, Bidasoaren bi aldeetan jarduten duten administrazioen kudeaketa koordinatua izatea ere opa dut. Agertoki horretan, planaren helburuak lortzeko behar adina baliabide ekonomiko eta giza baliabide erabili diren eszenatokia, Ekoetxea Txingudiko egungo langile taldea egonkor mantentzea urte asko baitaramate eremu babestuaren kudeaketarekin lotutako lanetan. Horrez gain, lurraldeak nola funtzionatzen duen eta zer arazo dituen ere jakitun direlako.

Azken finean herritarrek Txingudi gune berezi gisa baloratzea eta aintzat hartzea da helburuetako bat. Ondo kontserbatutako eta kudeatutako lurralde bat, osasungarria da bai naturarentzat bai herritarrentzat.





Txingudiko badia Gipuzkoan dagoen padura ingurunearen eredurik onena da. Hezegune berezi eta baliotsu hori, balio ekologiko aintzatetsia duen espazio naturala da. Gainera, hegazti espezie askotako migrazio-bidean kokatuta egoteak babesleku garrantzitsu bihurtu du.

Babes irudi garrantzitsuenak:

- | Txingudiko Baliabide Naturalak Babestu eta Antolatzeko Plan Berezia
- | RAMSAR Hitzarmena (Nazioartean garrantzia duten hezeguneak)
- | Natura 2000 Sarea (GKL eta BBE)

La bahía de Txingudi es el mejor ejemplo de medio marismeno existente en Gipuzkoa. Este singular y valioso humedal es un espacio natural de reconocido valor ecológico, y su privilegiada situación en el paso migratorio de numerosas aves lo convierte en una importante zona de refugio.

Principales figuras de protección:

- | Plan Especial de Protección y Ordenación de los Recursos Naturales del Área de Txingudi
- | Convenio RAMSAR (Humedales de Importancia Internacional)
- | Red Natura 2000 (ZEC y ZEPA)

Txingudiko lagunak

Amigos/as de Txingudi

Oraindik “Txingudiko Lagunak” taldean izena emana ez bazaude eta Plaiaundi eta Txingudiko padurei buruzko informazioa jaso nahi baduzu, sartu www.euskadi.net/txingudi web orrian, “Txingudiko lagunak” atalean eta agertzen den on line galdeketa bete. Ekimen honekin, hezegune honen kontserbazioan interesatuak dauden pertsonen taldea osatzea espero da, albistegi hau jasoko dutenak, eta nahi izanez gero, ekintza antolatuetan parte hartu ahal izango dituztenak.

Si aún no estás inscrito/a en el grupo “Txingudiko Lagunak” y deseas recibir información sobre Plaiaundi y las marismas de Txingudi, entra en la página web www.euskadi.net/txingudi, en el apartado “Amigos de Txingudi” y rellena el cuestionario on line. Con esta iniciativa se pretende formar un grupo de personas interesadas en la conservación de este humedal, que reciban este boletín, y si lo desean puedan colaborar con su participación en las actividades organizadas.



TXINGUDIKO PADURETAKO INFORMAZIO ZENTROA
CENTRO DE INTERPRETACIÓN DE LAS MARISMAS DE TXINGUDI

Plaiaundiko Parke Ekologikoa
Parque Ecológico de Plaiaundi

Pierre Loti ibilbidea • 20304 Irun (Gipuzkoa)
Tel.: 943 619 389
info.txingudi@ekoetxea.eus
www.ekoetxea.eus/txingudi

BISITA GIDATUAK
VISITAS GUIADAS

Egunero eskaintzen dira, doan. Beharrezkoa da aldez aurretik ordua eskatzea. Deitu eta informa zaitez.

Se ofrecen todos los días, gratuito. Es necesario concertar cita previa. Llamar para informarse.

ORDUTEGIA
HORARIO



Udaberria_Uda Primavera_Verano	10.00 - 14.00 / 16.00 - 19.00
Udazkena_Negua Otoño_Invierno	10.00 - 14.00 / 15.30 - 17.30